

2018ko abenduaren 11ko akta. 16:45

10 kide bertaratu ziren.

Urtxintxaren hitzaldia, jostailu ez sexisten inguruan:

Hitzaldia atzeratu egiten da, data berririk finkatu gabe (martxoa aipatzen da). Horrela egiten da publizitatzeko denbora faltagatik. Gauzatzeke gutxienez 15 pertsona egotea proposatzen da, beste zentro batzutura zabalduz ere.

Jardunaldi jarraia dela eta beste ikastetxeekin burutu den koordinazioaren egoera

Whatsapp lan taldea osatu da 6 edo 7 ikastetxerekin elkarrekin ekiteko. Abenduaren 12an lan taldeak bilera du eta adostutakoaz informazioa emango digute.

Denon Eskolatik datuen babesari buruzko legearen inguruan planteatutako informazioa

Elenak parte hartu zuen Denon Eskolaren hitzaldian, baina asanblada honetara etortzerik izan ez duenez, hurrengo asanbladarako uzten dugu gaia.

Lan talde ezberdinen informazioa: Jantokia...

-Eskolaz kanpoko ekintzak:

- Eguberrietako saskia: abenduaren 11an 525 € bilduta zeuden, eta 1.000 € bildu behar dira. Abenduaren 20an jasoko dira saldutako txartelen takoak eta dirua.
- Ekintzak: Urtarrilerako plaza librean prestatzen ari dira. Eskari handia dagoenez, jantoki orduan 5 urteko umeentzako karate txiki martxan jarriko da.
- Kontratupeko langileak: Hainbat begiraleren bajak izan dira, baina jada konpondu da kontua.
- Udalekuak eta barnetegia: Eztabaidatu zen ea eskola barruan, kanpoan edo bietan txandakatuz egitea. Bozkatzetakoan berdinketa izan zen eta OOGan eztabaidatzea erabaki zen. Urtarriean Abendañoako koordinatzailearekin bilera egingo da haien esperientzien berri izateko.
- Eskolaz kanpoko arazoak, aurreko OOGan hitzengidakoak (jardunaldi luzeegia): Zuzendaritzarekin bilera izan zen (Zuzendaria, Ikasketa burua eta Jantoki burua) eta arazoak konponbidean daude. Eskolaz kanpoko batzordea eratzea erabaki zen.
- Ordainagirien itzulketa: familiarekin harremanetan jartzen ari gara arazoa konpontzeko.
- Kirol jantziak: Saskibaloi eta eskubaloi elastikek La Pikotaren logoa izango duten, finantzatzen duelako. Ekainean berriro bilduko dira hurrengo urteetan berrerabiltzeko. Mariturri taldearenak dira eta honek maileguan uzten ditu.

Euskara taldea:

- Eskolarekin batera lan egingo da Olentzero eta Maridomingiren festan, oparitzeko saskiak erosiz eta trikitilariak eramanez.
- Auzoko Olentzero eta Maridomingiren festarako laguntzaileak eskatzen dira. Momentuz inor ez da agertu laguntzeko prest.
- Hilabete behin patioa euskaraz ekimenarekin jarraituko dugu.
- Urtarrietik aurrera euskara ikasteko eta bere erabilera sustatzeko eta baloratzeko familiarekin eta umeekin tailer batzuk martxan jarriko dira: sorgina txirulina (txikiekin eta ipuinekin euskara ikasi), betiko jolasak eta beste bateren bat.